

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ORRIAK, ARRATEKO ATERPETXEAN TALDEEN EGONALDIAK ETA OSTATATZEA KUDEATZEKO ETA GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA DINAMIZATZEKO LANA PROZEDURA IREKIZ KONTRATATZEKOAK.

1. Kontratuaren xedea.

ARRATEKO ATERPETXEAN TALDEEN EGONALDIAK ETA OSTATATZEA KUDEATZEKO ETA GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA DINAMIZATZEKO LANA du xede kontratuak, eta espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera egingo da, kontratu balioa izango duen dokumentazioa.

CPV kodea: 55100000

Kontratuaren bidez bete beharreko premien edo beharren justifikazioa. Eibarko udalak martxan ipini nahi du Arrateko Aterpetxea, 719 metro koadroko eraikin soziokulturala, Arrate gainean dagoena. Gune horrek behar den besteko ekipamendua du taldeak ostatatzeko eta Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa hartzeko; gelak ere baditu aisialdirako eta tailerrak edo ikastaroak emateko.

Arrateko Aterpetxea martxan ipinita, Arrate aldeak duen erakargarritasun turistikoaren garrantzia nabarmendu nahi da, Eibarrera bisitari-taldeak ekartzea eta Gerra Zibileko Eibarko Frontea ezagutaraztea, frontea bertan egon baitzen.

2. Kontratuaren finantzaketa:

Zerbitzu eskaintzaren truke, kontratuaren adjudikaziodunak, ondorengo zenbateko hauek jasoko ditu:

a) Zerbitzuaren erabiltzaileek ordainduko dituzten zenbatekoak:

Zerbitzuaren erabiltzaileek ordainduko dituzten kuotak ondoko prezio-taula honetan ezarritakoak izango dira; talde bakoitzak, gutxienez, hogeita bi pertsona izango ditu.

Talde horiek 22 pertsonatik beherakoak badira, 22 pertsonako talde bati legokiokeen zenbatekoa ordaintzea exijituko zaie.

ARRATEKO ATERPETXEA / OSTATU EMATEA.	Egun 1.	Egun 2 (gau 1).	3 egun. (gau 2)	Gainerako egunak.
Aterpetxe-zerbitzua, otordu barik.	10 €	18 €	27 €	8 €/gaueko.
Aterpetxe-zerbitzua, otorduak (1).	-	28 €	50 €	Beste gau bat gehiago 20 €

(1) Sartuta daude: gosaria edo almortzua, bazkaria, askaria eta afaria. Ez da sartzen azkenengo eguneko bazkaria.

TALDEEN EGONALDIA OSTATU HARTU GABE.	3 ordu	5 ordu	10 ordu	12 ordu
--------------------------------------	--------	--------	---------	---------

Jangela eta ikastaro-gela.	54 €	90 €	130 €	150 €
Dutxak.	70 €	115 €		

GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA.				
Bisita gidatuak gerrako frontearen ibilbideetara eta aztarnetara (iraupena: 4 ordu. Taldeak: gehienez, 22 pertsona).			150 €	

Prezio horiek finkoak izango dira kontratuak dirauen denbora guztian eta lizitzaileek ezingo dituzte aldatu beren proposamenak egiterakoan.

b) Udalak ordainduko duen zenbatekoa.

Udalak, horrez gain, adjudikaziodunari 9.917,36 €ko gehieneko zenbatekoa ordainduko dio urtean (BEZik gabe). Zenbateko hori hobetu daiteke lizitzaileek egiten dituzten eskaintzetan.

3. Egikaritze-epea.

Epe osoa: Kontratua burutzeko epea urte batekoa izango da, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatuta.

4. Luzapenak.

Luzapen bat onartzen da, elkar adostua, urtebeteko iraupenekoa.

5. Prezioak berrikustea.

Kontratu honi ez dagokio prezio berrikuspenik.

6. Kontratuaren finantzaketa:

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa aurreikusita dago urte honetako aurrekontuan.

7. Kontratuaren araubide juridikoa eta kontratu izaera duten dokumentuak.

Baldintza plegu honek xede duen kontratua administrazio-izaerakoa da eta azaroaren 14ko 3/2002 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuak eraenduko du; baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak –neurri batean, partzialki, sektore publikoko kontratuei buruzko 30/2007 legea garatzen duena- eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onetsi zen Administrazio Publikoen kontratuen legeko Erregelamendu Orokorrak ere (hemendik aurrera, APKLEO). Osagarri legez, administrazio zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Baldintza-orri edo plegu honetaz gain, honako agiri hauek ere kontratu-izaeradunak izango dira:

- Agindu teknikoen baldintza orria.
- Kontratua formalizatuko duen dokumentua.

Kontratu hau Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua ezartzen duen hizkuntza bien ofizialtasun araubideari lotzen zaio eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen araupean dago, baita azken lege hori garatzen duten

araudien menpe ere, besteak beste Eibarko Udalak berak duen Euskararen Erabilerarako Planak dioenaren menpe.

8. Adjudikaziorako prozedura:

Kontratu hau esleitzeko modua prozedura irekiarena izango da adjudikaziorako irizpide batzuk erabilia; hartara, interesa duen enpresari orok aurkez dezake proposamena, eta kontratuaren baldintzak inolaz ere ezingo dira negoziatu, azaroaren 3/2011ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 157. artikulua dioen bezala.

Proposamenak baloratzeko eta diruaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari zuzenean dagozkion irizpide batzuk izango dira kontuan hartuko direnak, azaroaren 3/2011ko 3/2002 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 150.1 artikulua dioenarekin eta Plegu honetako 2.8 klausulak ezarritakoarekin bat etorrira.

9. Adjudikaziodunak ordaindu beharreko lizitazio-publizitatearen gastuen gehieneko zenbatekoa.

Publizitate-gastuak udalaren kontu geratuko dira.

10. Galda daitezkeen bermeak.

Kontratuaren adjudikazioduna derrigortuta dago 1.960 €-ko behin-betiko bermea eratzera hartu dituen obligazioak bete egingo dituela bermatu ahal izateko.

11. Proposamenak aurkezteko lekua:

Proposamenak kontratuaren iragarkian izendatutako kontratatze organoaren bulegoetan aurkeztuko dira, eta aurkezleari, egiaztapen gisa, erreziboa emango zaio, lizitatzailaren izena, kontratuak duen xedeari izena eta aurkezpeneko eguna eta ordua jasota.

Bestalde, proposamenak postaz ere aurkeztu ahal daitezke. Hala eginez gero, enpresariak posta bulegoan justifikatu beharko du igorpena ipini zueneko data eta kontratatze-organori eskaintzaren igorpena egun berean jakinaraziko dio telex bidez, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Fax zenbakia 943200288 da, posta bulegoan igorpena ipini deneko dataren justifikazioa fax hartara bidali beharrekoa baita; eta posta elektronikoa, hauxe: eerrasti@eibar.net. Ez da onartuko beste fax edo posta elektronikoa batera bidalitako eskaintzarik.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira (ipintze- edo ezartze-data justifikatzea eta aurreko paragrafoan xedatutako bitarteko horietako baten bidez bidaltzea edo igortzea), ez da dokumenturik onartuko kontratatze-organoi iragarkian adierazitako epe-amaieraren data eta ordu horretatik aurrera jasotzen baditu.

Halere, adierazitako data horretatik hamar egun igaro badira dokumentaziorik jasotzeke, dokumentazioa ez da inondik inora onartuko.

12. Gaitasun baldintzak.

Eskaintzak aurkeztu ahal ditzaketen bakarrak hauek dira: pertsona fisikoak edo juridikoak, espainiarrak zein atzerritarrak, jarduteko erabateko ahalmena dutenak; haien helburuek, xedeek

edo jarduera-esparruek -beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera- kontratu honen xedearekin lotura zuzena badute; SPKLTBaren 60. artikulua kontratatzeke ezartzen dituen debekuetako batean sartuta ez daudenak; beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa, baldintza-orri honetan adierazitako betekizunekin eta bertan esandako moduan egiaztatzen dutenak.

13. Proposamenak aurkezteko modua.

Lizitatuak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

Proposamenak hurrenez hurren zenbakitutako HIRU kartazaletan aurkeztuko dira, eta honako datuok azaldu beharko dira kartazal bakoitzaren gainaldean:

Kontratuaren izena.

Banakako enpresaburuaren edo eskaintza aurkezten duen baltzu edo sozietatearen izena.
IFKren zenbakia, edo, hala badagokio, NANaren zenbakia. Helbidea, jakinarazpenetarako.
Faxa/Telefonoa/Helbide elektronikoa, jakinarazpenetarako. Eskaintza izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen (bere izenean, administratzaile bakar gisa, ahaldu gisa...).

Kartazalak, nahitaez, lizitatuak edo hura ordezkatzeko duenak izenpetu beharko ditu.

A. 1 ZENBAKIKO KARTAZALA (DEKLARAZIO ARDURATSUA). Dokumentazio hau izango du:

a) DEKLARAZIO ARDURATSUA, lizitatuakarena, Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak bete egiten dituela adierazten (II. ERANSKINA, EREDUA, ERANTSIA). Kasu horretan, adjudikazio-proposamena egokitu zaion lizitatuak, kontratuaren adjudikazioa egin aurretik, exijitu zaizkion dokumentuak badituela eta baliokoak direla egiaztatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean.

Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, adjudikazio-proposamena egin baino lehen, kontratazio-organoak edozein unetan eska dezake lizitatuak kontratuaren adjudikaziodun izateke ezarritako baldintzak bete egiten dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa.

Administrazioarekin kontratatzeke exijitzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak bete egiten direla ikusteko memento erabakigarria proposamenak aurkezteke epearen amaiera izango da.

c) Hala balitz kasua, aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) bat eratzeko konpromisoaren dokumentua edo agiria: Hainbat enpresaburu aldi baterako batasun batean elkartuta daudenean, pribatua izan daitekeen dokumentu bat eman beharko dute, non eta, esleipen-hartzaile aterako balira, hura eratzeko konpromisoa hartuko duten. Enpresa bakoitzeko ordezkariak izenpetu beharko du dokumentu hori, eta bertan adieraziko da nor izendatzen duten aldi baterako enpresa-elkartearen (ABEE) ordezkari Administrazioaren aurrean kontratuari buruzko ondorio guztietarako, eta orobat ABEE bakoitzari dagokion parte-hartzea.

c) Hala bada kasua, beren plantillan ezgaitasun edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak dauzkaten enpresek aurkeztu behar dituzten dokumentuak. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKEO TESTU BATERATUAREN 4. xedapen gehigarrian araututako lehentasuna esleipenerako izan nahi duten lizitatuak aurkezten dituzten dokumentuetan, proposamena aurkezterakoan beren plantillan 100eko 2tik gorako ezgaitasuna duten langile-kopuru bat dutela egiaztatu beharko dute, edota enpresa lizitatuak espezifikoki aritzen dela gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen lan-sustapenean eta lan-gizarteratzean,

SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO TESTU BATERATUAREN 4. xedapen gehigarriak aipatzen duen kontratatzeko konpromiso formalarekin batera.

B) 2. ZENBAKIKO KARTAZALA (ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK, BALIO-JUDIZIO BITARTEZ NEURTU DAITEZKEENAK).

Hauxe aurkeztu behar da:

a) OSTATU-EMATE ZERBITZUA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA, alderdi hauek deskribatuta:

- a) Aterpetxea darabilten pertsonen arreta eskaintzeko izango diren zerbitzuak. Baldintza-orrietan azaltzen direnak baino hobeak badira bakarrik deskribatuko dira erabiltzaileei eskainiko zaizkien zerbitzuak.
- b) **Garbiketa:** zereginak eta garbiketa-aldiak adierazita, zuzen egin dadin.
- c) **Jatordu- edo otordu-zerbitzua:** zereginak eta antolatze modua adierazita.
- d) **Arrateko Aterpetxearen dinamizazio-zerbitzua: Tailerrak eta jarduerak:** han bertan eta inguruan antolatuko direnak taldeak dinamizatzeko.
- e) **Arrateko Aterpetxea izena hedatzeko eta zabaltzeko kanpaina-proposamena:** bereziki, gizarte-sareei erreparatuta.

OSTATU-EMATE ZERBITZUA ANTOLATZEKO PROPOSAMENAK ezingo du eduki 20 orrialdetik gorako orrialderik –DIN A-4 tamaina-, aurpegi batetik idatzita 10eko gorputza duen Arial letra-motarekin edo letra handixeagoarekin; lerroarteko arruntarekin edo handiagoarekin. Baztertu egingo dira hori baino dokumentu idatzi luzeagoak dakartzaten proposamenak.

b) GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA DINAMIZATZEKO PROPOSAMENA, alderdi hauek deskribatuko dituena:

- a) **Arrateko Aterpetxean dagoen Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa irekitzeko eta dinamizatzeko proposamena.** Irekiera-zerbitzuaren eskaintzaren eta egitea proposatzen diren jardueren deskripzioa hartuko da aintzat.
- b) **Gerra Zibileko Eibarko Frontea izan zen lekuetara -Arraten eta inguruetan-bisita gidatuak egiteko proposamena.** Proposamenean baloratuko dena bisita gidatuen antolaketari buruzko zereginen antolaketa eta deskripzioa izango da.
- c) **Enpresa adjudikaziodunak Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroari egingo dion zabalkundeari eta hedapenari buruzko proposamena.** Proposamen horretan gizarte-sareetako kanpainak barneratu behar dira.

GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA DINAMIZATZEKO PROPOSAMENAK ezingo du eduki 20 orrialdetik gorako orrialderik –DIN A-4 tamaina-, aurpegi batetik idatzita 10eko gorputza duen Arial letra-motarekin edo letra handixeagoarekin; lerroarteko arruntarekin edo handiagoarekin. Baztertu egingo dira hori baino dokumentu idatzi luzeagoak dakartzaten proposamenak.

C) 3. ZENBAKIKO KARTAZALA (ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK, MATEMATIKA FORMULEN BITARTEZ NEURTU DAITEZKEENAK).

Dokumentazio hau izango du:

- Eskaintza ekonomikoa. Kontratua egiteko prezioa adieraziko da; Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa partida aske edo independente legez azaldu behar da.

Eskaintza ekonomikoa baldintza orri edo plegu honi erantsi zaion I. ERANSKINA ereduaren arabera aurkeztuko da.

14. Proposamenak aurkezteko epea eta proposamenek bete beharreko gainerako eskakizunak.

Proposamenak lizitazioaren iragarkian finkatutako epe horren barruan aurkeztuko dira.

Administrazio-klausula berezien baldintza-orrian xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta haiek aurkezteak esan gura duena da enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horien guztien edukia eta orobat agindu teknikoen baldintza-orria, inolako salbuespen edo erreserba barik.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta haiek jendaurrean zabaldu arte izaera hori bermatuko duten bitartekoak ezarriko dira.

Lizitatuzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat besterik.

Bakarka aurkeztuz gero ezingo du aldi baterako batasun proposamenik izenpetu, ezta aldi baterako enpresa batasun baten baino gehiagotan agertu ere. Arau horiek hautsiz gero, lizitatuzaile horrek izenpetu dituen proposamen guztiak baztertuko dira.

15. Kontratuaren adjudikaziorako irizpideak.

Honako irizpide hauek balioetsiz esleituko da kontratua:

A. MATEMATIKA FORMULEN BITARTEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

UDALAK ORDAINDUKO DUEN ZENBATEKOA. 60 PUNTU.

Eskaintzarik merkeenari 60 puntu emango zaizkio. Hortik aurrera hiruko erregela bat aplikatuko da gainerako puntuaketetarako proportzionaltasun hutseko irizpideekin, zehazteko: "*Baldin eta Ari 60 puntu badagozkio, Bri X egokituko zaizkio, non eta X Aren berdina izango den 60rekin biderkatuta eta Bkin zatituta*".

B. BALIO-JUDIZIO BIDEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

IRIZPIDEAK: OSTATU-EMATE ZERBITZUA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA.

Puntuazioa: 25 puntu, era honetan banakatuta:

- a) **Aterpetxea darabiltenei arreta eskaintzeko zerbitzuak.** Baldintza-orrietan azaltzen direnak baino hobekak badira bakarrik deskribatuko dira. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu ondoen garatutako Memoriari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.
- b) **Garbiketa:** zereginak eta garbiketa-aldiak adierazita, zuzen egin dadin. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu ondoen garatutako Memoriari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.

- c) **Jatordu- edo otordu-zerbitzua:** zereginak eta antolatzeko modua adierazita. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu ondoen garatutako Memoriari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.
- d) **Arrateko Aterpetxearen dinamizazio-zerbitzua: Tailerrak eta jarduerak:** taldeak dinamizatzeko, han bertan eta inguruan antolatuko direnak. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu antolatuko diren tailerren eta jardueren inguruan aurkezten den proposamen onenari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.
- e) **Arrateko Aterpetxearen izena hedatzeko eta zabaltzeko kanpaina-proposamena:** bereziki, gizarte-sareei erreparatuta. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu ondoen garatutako Memoriari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.

IRIZPIDEAK: GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETazio ZENTROA DINAMIZATZEKO PROPOSAMENA.

Puntuazioa: 15 puntu, era honetan banakatuta:

- a) Arrateko Aterpetxean dagoen Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa irekitzeko eta dinamizatzeko proposamena. Irekiera-zerbitzuaren eskaintza eta han egitea proposatzen diren jardueren deskripzioa hartuko da aintzat. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu zerbitzu- eta jardueraren eskaintzaren inguruan aurkezten den proposamen onenari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.
- b) Gerra Zibileko Eibarko Frontea izan zen lekuetara -Arraten eta inguruetan- bisita gidatuak egiteko proposamena. Proposamenean baloratuko dena bisita gidatuen antolaketari buruzko zereginen antolaketa eta deskripzioa izango da. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu zerbitzu horren inguruan aurkezten den proposamen onenari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.
- c) Enpresa adjudikaziodunak Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroari egingo dion zabalkundeari eta hedapenari buruzko proposamena. Proposamen horretan gizarte-sareetako kanpainak barneratu behar dira. Gehienez ere, bost puntu. Bost puntu hedapen eta zabalkunde-proposamenaren inguruan aurkezten den proposamen onenari; bi puntu eta erdi askietsizat jotzen denari eta zero puntu eskatzen den zerbitzua emateko behar adinakoa ez denari.

16. Aldaerak.

Aldaerak eta hobekuntzak onartzen dira kontratuaren inguruan aurreko atalean islatu diren baldintza, muga, modalitate eta alderdi guzti horiek kontuan hartuta.

17. Konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organoek hedatu ahal izango dute 2. KARTAZAL honen barruan enpresarioek emandako informazioa, baldin eta enpresariook informazio hori konfidentzialtzat eman ez badute.

Enpresarioek egin dezaketen konfidentzialtasun deklarazioak ondoko erregela hauek bete beharko ditu:

a) Ezingo da egin konfidentziasuneko deklarazio generikorik; eta ezta izango ere onargarria aurkeztu diren dokumentu guztiak edo informazio guztia konfidentziasun izaerakotzat hartzea.

d) Espezifikatu egin beharko da, berariaz eta zehatz, 2. kartazalaren barruan sartuko den beste orri batean, aurkeztutakoetatik zein dokumentuk edo dokumentutsuk duten konfidentziasun izaera hori.

c) Adierazi egin behar dira konfidentziasun deklarazio hori zein inguruabarretan oinarritzen den. Hona hemen:

- Sekretu industrialak, teknikoak edo merkataritzakoak.
- Merkataritza interes legitimoa.
- Jabetza intelektualaren eskubidea
- Enpresen arteko lehia leialari eragin ahal diezaioketen inguruabarrak.
- Enpresarendako balio handia duen informazioa edo garrantziko aktiboa dena, ikerketan egindako inbertsioen ondoriozkoa delako, esperientziak ematen duen ezagutzatik datorrelako edo gainerako hautagai edo lizitatzailen aurrean balio estrategiko berezia duelako, edo enpresa-kudeaketa modu jakin bat adierazten duelako.

Edozein modutan ere, informazio jakin bat konfidentziaz hartu eta babestu nahi izateak ezin ditu utzi publizitate eta gardentasun printzipioak edukirik gabe.

Horrela, enpresarioak bere proposamenean konfidentziaz deklaratu duen informazio jakin bat beste norbaitek eskuratu nahi izango balu, enpresarioari posta elektronikoz bidaliko zaio eskaera, informazio hori emateak bere merkataritza interes legitimoek kalte egin diezaiokeen ala ez hiru laneguneko epean adieraz dezan, hori dena arrazoituta. Eskatu diren datuei buruzko inguruabar horiek ziurtatzen ez badira, datu horiek ez dira konfidentziaz hartuko.

Orobat, kontratistak aintzat hartu behar du, baldintza-orrietan edo kontratuan, aipatutako izaera hori eman zaion kontratu hori burutzerakoan eskuragarri daukan informazioaren isilpeko izaera, edota bere izaeraz halaxe erabili behar dena.

18. Dokumentazioa eta proposamenak zabaltzea.

a) Kontratazio-mahaiak, 2. KARTAZALA zabaltzeko ekitaldi publikoa egin baino lehen, hauxe egiaztatuko du: lizitatzailiek 1. KARTAZALAREN barruan aurkeztu dituzten deklarazio arduratsuak behar den moduan izenpetuta daudela eta, formaren ikuspegitik eta ikuspegi materialetik ere, legez eta erregelamenduz aplikagarri diren arauak galdatutakoa ere bete egiten dutela. Aurkeztutako deklarazio edo aitorten arduratsu horietan konpon daitezkeen akatsen bat ikusiko balitz, lizitatzailerei hiru eguneko epea emango zaie kontratazio-mahaiaren aurrean akats hori konpon dezaten.

b) Jendaurrean edo ekitaldi publikoan zabalduko da 2. KARTAZALEKO dokumentazioa (balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen esleipen irizpideak), udaletxeko batzar-aretoan, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik lanegunekoa den lehenengo astelehenean, goizeko 11etan.

e) Aurreko jarduerak egin ondoren, 3. KARTAZALA (matematika-formulen bidez neurtu daitezkeen irizpideak) zabaltzeko ekitaldi publikoa aurrez lizitazio-iragarkian adierazi izan den lekuan eta egunean irekiko da, eta hura garatzerakoan Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 83. artikulua aurreikusitako formaltasunak beteko dira.

Eibarko Udalaren Kontratzailearen profilean argitaratuko dira Kontratazio Mahaiaren akta guztiak, OHOLA atalaren barruan.

19. Kontrata adjudikatzea eta formalizatzea:

19.1. Adjudikazioa:

Kontratazio mahaiaren akta jaso ondoren, kontratazio-organoak proposamenak sailkatuko ditu eta eskaintza ekonomikorik onena edo onuradunena egin duen lizitzaileari, azpian adierazitako dokumentazio justifikatzailea aurkeztea eskatuko dio HAMAR laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

1.) Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:

a) Banakako enpresariak NANaren kopia eskuetsia ekarri behar dute; pertsona juridiko diren enpresariak eskritura edo erakundearen edo entitatearen eraketa dakarten dokumentuak eta hura arautzen duten Estatutuak, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak.

b) **Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatu-kideen artean espainiarrak ez diren enpresek** jarduteko duten gaitasuna egiaztatu beharko dute Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen (APKL) Erregelamendu Orokorreko I. Eranskinean adierazten diren erregistroetako batean inskribatuta daudela dioen ziurtagiria edo zinpeko deklarazioa aurkeztuta.

c) **Atzerriko gainerako enpresariak** beren jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion Estatuak ordezkaritza diplomatiko espainiarrak emandako txosten bidez, non eta agerrazaziko baita tokiko, lanbideko, merkataritzako edo antzeko Erregistroan inskribatuta ageri direla, edo, halakorik ezean, tokiko trafikoko ohikotasunez jarduten dutela, kontratuaren xedea edo objektua eratzen duten jardueren alorrean.

Halaber, dagokion espainiar ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren txostena eman beharko dute hauxe esaten: beren jatorriko Estatuak, bere aldetik, onartu egiten duela espainiar enpresek Administrazioarekin kontratuak egitea, funtsean antzekoa den moduan.

2) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: Proposamenak ez badu lizitzailearen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahalordedunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.

3) Zerga-betebeharretan egunean dagoela dioen ziurtagiri frogagarria.

4º) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiri frogagarria.

OHARRA: Espainian egoitza fiskalik ez duten atzeritarrek - pertsona fisiko edo juridiko izan, Europar Batasuneko estatu-kide batekoa izan edo ez izan arren- beren jatorrizko herrialdeko aginpide eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, dagozkien zerga-obligazioen betetzean egunean daudela adieraziko duen ziurtagiria. Era berean, ziurtagiria aurkeztu beharko dute –hori ere horretarako eskumena duen agintaritzak luzatua- beren jatorriko herrialdean exijitzen diren gizarte-obligazioak egunean dituztela egiaztatzen. Atal honetan aipatu den dokumentazio guztia azken hamabi hile hauetakoa izan beharko da.

5) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta, jardunaldi honetakoa, edo bestela, azkeneko erreziboa, zerga horren matrikulan ez duela bajarik liokeen erantzukizuneko deklarazio batekin osatua. Zerga ordaindu beharrik izan ezean, horren inguruko ziurtagiri egiaztatzailea, horretan eskumena duen Administrazioak luzatutakoa.

6) Kaudimena egiaztatzeko dokumentuak:

Ekonomia eta finantza arloetako kaudimena.

Enpresak duen NEGOZIO BOLUMEN OSOARI BURUZKO DEKLARAZIO BAT aurkeztu behar da (fakturazioa), azken hiru jardunaldietakoa, beti ere enpresa sortu zen dataren arabera edo enpresa lanean hasi zen dataren arabera. Egiaztatu behar den gutxieneko negozio-bolumen osoa 40.000 eurokoa izango da.

Kaudimen teknikoa eta profesionala. Hauxe aurkeztu behar da:

- Azken hiru urte hauetan, ekipamendu soziokulturaletan (aterpetxe, kultur etxe, zentro zibiko, antzoki, ostalaritza...) eskainitako zerbitzu edo lan nagusien inguruko KONTRATU NAGUSIEN ZERRENDA, bakoitzaren zenbatekoa, datak eta hartzailea – publikoa zein pribatua- adierazita. Eskainitako zerbitzuok edo egindako lanok, horretarako eskumena duen organoak luzatutako edo onetsitako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira hartzailea sektore publikoko entitate bat edo erakunde bat denean; oster, hartzailea subjektu pasibo bat denean, horrek luzatutako ziurtagiri bidez, edo – ziurtagiririk ezean- enpresarioak egindako adierazpen bidez. Baldintza hori egiaztatutzat hartuko da azken hiru urte hauetako batean lizitatzailleak zentro soziokulturalen bat (aterpetxea, kultura etxea, zentro zibikoak, antzokiak...) edo ostalaritza-zentroyen bat kudeatu izan badu.
- Jarduerak eta tailerrak dinamizatu edo biziagotuko dituzten pertsonen zerrenda. Pertsona horiek EGA tituluaren jabe eta horren mailako beste tituluren baten jabe direla egiaztatu beharko dute egiaztatze-agiri bidez.

7) Erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu izanari buruzko egiaztageria, aseguratutako gutxieneko arriskua 300.000 €koa izanik.

8) Behin-betiko bermea eratu izanaren egiaztageria, 1.960 €-koa.

1. OHARRA: **Kontratisten Erregistro Ofizialean** inskribatuta egonez gero –**Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoko Sailaren** 1 Dekretuz erregulatutako erregistroa- ez dira aurkeztu behar aurreko 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakietako ataletan aipatu diren dokumentuak, eta eskatuko balitz, sailkapenaren egiaztatpena, baldin eta indarrean dagoen ziurtagiriak klausula horiek aipatzen dituzten datuak islatzen baditu.

Aurkeztu beharko diren dokumentuak hauexek dira:

a) Erregistroan inskripzioari dagokion ziurtagiria, indarrean dagoena.

b) Enpresaren erantzukizuneko deklarazioa, ziurtagirian islatu diren inguruabar horiek ez dutela aldaketarik izan adierazten.

2. OHARRA: **Estatuko Lizitzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzio-ziurtagiriak** SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO TESTU BATERATUAREN 83. artikuluan ezarritako ondorioak izango ditu.

Emandako agindua ez bada behar bezala betetzen adierazitako epe horren barruan, lizitzaileak berak egindako eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta, kasu horretan, eskaintzen sailkapenean ondoren datorren lizitzaileari eskatuko zaio aurrekoari eskatutako dokumentazio berbera.

Kontratazio-organoak, dokumentazioa jaso eta hurrengo BOST lanegunen barruan adjudikatuko du kontratua.

19.2. Formalizazioa:

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatuta edo jasota gauzatuko da, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO TESTU BATERATUAREN 27. artikularen arabera eta lege horren 156.3. artikuluan ezarritako epeen barruan.

Kontratua Aldi Baterako Enpresen Elkarte (ABEE) bati emanaz gero, elkarte horretan dauden enpresek elkarte-eraketa egiaztatu behar dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, baita elkarte horri esleitutako IFZa ere.

19.3 Kontratatzailearen profila.

Kontratuaren adjudikazioa EIBARKO UDALAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO TESTU BATERATUAREN 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

EUSKADIKO KONTRATATZE PUBLIKOAREN web-orriaren bitartez egingo da EIBARKO UDALAREN kontratatzailearen profileraren sarbidea: www.contratación.euskadi.net

20. Egiten den lanaren zuzendaritza eta ikuskatzea.

Kontratuaren zuzendaria izango da, itundutako prestazioa edo zerbitzua zuzen egiten dela egiaztatu, koordinatu eta zainduko duen pertsona; haren ardurapean dago hori dena eta horrez gain, titulazio egokia eta nahiko duena izango da.

Bere lana betetzeko haren agindupean jardungo luketen lankideak izan ditzake, eta horiek beren lanbide-titulu edo jakintza espezifikoko eskudantzia edo aginpideen arabera garatuko dute beren jarduna; horiek denek osatuko dute Zuzendaritza.

Kontratatari, kontratua formalizatzen denetik, 15 eguneko epean adieraziko dio udalak zein den lan horretarako izendatu duen Zuzendaria. Zuzendariak bere aldetik, modu berean jokatu du bere pertsonal laguntzaileekin. Aldaketaren bat eginez gero, bai zuzendaritzan, bai langileenean, kontratatari jakinaraziko zaio idatziz.

21. Kontratua burutzea.

Kontratuak zurrun eta zorrotz jarraituko dio Agindu Teknikoen Baldintza Pleguak dionari eta Baldintza Plegu honetan zehaztutakoari, eta, edozein kasutan ere, Udalaren ordezkariak, kontratatari, agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratista derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen udalak aurretik eskatu edo ohartarazi behar dionik.

Kontratista, zerbitzua edo prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi datxekion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa, botere hori benetan, eraginkortasunez eta etengabe betetzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea -hala egitea dagokionean; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne; eta baita enpleguaren eta enplegatuaren arteko lan-kontratutik sortzen diren gainerako eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua- eta, horrek beste eginkizun batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

- a) Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako, kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.
- b) Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat, pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenetan; kontratutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.
- c) Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki, haiek zeuzkaten lan bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

22. Kontratistari egin beharreko ordainketak.

Ordainketen denbora bitartea: Hilero, aurretik hilabete horri dagokion faktura aurkeztuta.

Kontratuaren prezioa, SPKLTBaren 216. artikuluan xedatutako epeen barruan ordainduko du.

Faktura elektronikoa: Fakturak, derrigorrez, Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (FSP0e) bitartez helarazi beharko dira: <https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua> .

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Organo kudeatzailea:	L01200300
Unitate izapidetzailea:	L01200300
Kontabilitate bulegoa:	L01200300

23. Kontratistaren obligazioak.

Kontratista izango da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren arduraduna eta eskaintzen edo ematen dituen zerbitzuen; baita ere, kontratua egiterakoan egin diren ez-egiteen, akatsen, metodo desegokien edo zuzenak ez diren konklusioen ondorioek udalari edo hirugarrengoei, dakarkieten ondorioak.

Kontratatik pertsona bat izendatu behar du, kontratuaren egikaritzan edo kontratua burutzean udalaren solaskidea izango dena.

Adjudikaziodunaren kontu geratzen dira hirugarrengoei sor dakizkiekeen kalte-ordainak.

Kontratataren kontura geratzen dira lizentziak, dokumentuak edo erakunde ofizialetatik edo partikularen aldetik eskuratu behar den edozein informazio eskuratzeko sortzen diren gastuak. Orobat, zergak, eskubideak, tasak edo konpentsazioak eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikagarriak zaizkion gainerako grabamen edo gastu guztiak, xedapen horiek ezarritako eran eta zenbatekoetan.

Kontratatari dagokio zerbitzua edo prestazioa egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak -ofizialak nahiz partikularrak- eskuratzea.

24. Betearazteko baldintza bereziak.

Kontratu hau betetzeko, derrigorrezkoa da egikaritze-baldintza berezi hauek betetzea:

- Kontratuaren adjudikaziodunak, kontratua indarrean dagoen denbora tarte guzti horretan, egunean eduki behar ditu bere langileen soldata-ordainketak eta Gizarte Segurantzarekin dituen obligazioak. Obligazio hori bete ezean, kontratuaren funtsezko obligazio bat betetzeke geratuko litzatekeenez, kontratatari kontratua mozteko arrazoietakoa bat izango litzateke. Baldintza hori bete egiten dela egiaztatzeke, kontratatistak, obligazioa bete egin duela egiaztatzea eskatzen zaionean, kontratazio-organoari edozein informazio edo dokumentu eman beharko dio.
- Kontratua gauzatzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratatistak bere burua derrigortua du, eskaintza aurkezteko unean aplikatu daitekeen lan-hitzarmenaren arabera, edo, hala balitz kasua, lan-hitzarmena hobetzeko enpresaren eta langileen artean izenpetutako itunen arabera egindako kontratuari atxikitako beharginei une bakoitzean dagozkien lan-baldintzak –lanaldia, soldata, eta urtekoan egokituak- bere kabuz eta aldebakartasunez ez murriztera. Horretan, salbuespen bakarra, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordio esplizituen bat izatea izango litzateke. Baldintza hori bete egiten dela egiaztatzeke, kontratatistak, obligazioa bete egin duela egiaztatzea eskatzen zaionean, kontratazio-organoari edozein informazio edo dokumentu eman beharko dio.

Kontratu gauzatzeko baldintza berezi hori beteko ez balitz, zehapena ezarriko da, eta honela kalkulatu da zehapen horren zenbatekoa: kontratuaren aurrekontuari, kontratuari atxiki zaizkion beharginen lan-hitzarmenak duen orduko/soldata hori gehien murriztu edo kendu zaionaren portzentaje hori berbera izango da, muga % 10 izanik. Orduko/soldataren murrizketa % 10etik gorakoa izango balitz edo, kontratatistak emango ez balu klausula honetan ezarritako obligazioa bete egin duela egiaztatzeke eskatu zaion informazioa, kontratuaren funtsezko obligazio bat betetzeke utzitakotzat hartuko da eta kontratatari kontratua mozteko arrazoiak izango litzateke.

25. Kontratuaren betetze akastuna.

Kontratua betetzeko modu akastuntzat hartuko da:

Ez-betetze arinak:

- Atzerapenak adjudikaziodunak dituen obligazioak betetzean.
- Erregelamenduak dioena ez betetzea.
- Zerbitzurik ez eskaintzea edo eskaintza ez irekitzea erregelamenduak azaltzen dituen aldi horietan eskatu izan denean.
- Instalazioak itxuran ez edukitzea eta osasungarritasun gabe.
- Baldintza teknikoetan seinalatutako hizkuntza-irizpideak ez betetzea, beti ere, tartean, kontratua mozteko arrazoibidetik ez bada.

Ez-betetze arin horiek 100 euroko zigorra jasoko dute.

Ez-betetze larriak:

- Hirutan egitea arau-hauste arin bera.
- Adjudikaziodunaren jardunarengatik Arrateko Aterpetxearen instalazioek balio-galera dakartenean (kaltea 5000 €tik beherakoa bada).
- Zerbitzuak dituen ordutegiak ez betetzea.
- Aterpetxea darabilten pertsoneri errespetua galtzea.

Ez-betetze larri horiek 500 euroko zigorra jasoko dute. Zehapen edo zigor horiek ordainduko egingo dira, udalak, enpresari, egin dituen kalteen ordaina edo kalte-ordaina galdatzeko duen eskubidez aparte.

Ez-betetze oso larriak:

- Birritan egitea arau-hauste larri bera.
- Adjudikaziodunaren jardunarengatik Arrateko Aterpetxearen instalazioek balio-galera dakartenean (kaltea 5000 €tik gorakoa bada).

Ez-betetze oso larri horiek 1.500 euroko zigorra jasoko dute edo, era berean, kontratua moztea. Zehapen edo zigor horiek ordainduko egingo dira, udalak, enpresari, egin dituen kalteen ordaina edo kalte-ordaina galdatzeko duen eskubidez aparte.

26. Atzerapena kontratua betetzean.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzean erori izan balitz, bai guztizko epearekiko, bai ezarritako zatikako epeekiko, SPKLTBaren 212. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da zigor horiek ezartzerakoan.

27. Funtsezko obligazioak.

Funtsezko obligaziotzat hartuko da

- a) Funtsezko obligaziotzat hartzen da ondoren aipatuko den dokumentazio hau udalean aurkeztea, hark horretarako agindua ematen duen egunaren biharamunetik zenbatuta, gehienez ere 5 eguneko epean:
 - Langileei buruzko datuak, udalak eskatzen dizkion guztiak, kontratuak izan dezakeen subrogazio batek lekarzkiekeen kostu laboralen inguruko balorazioa egin dezan.
 - Enpresak bere langileen soldata-ordainketak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituela egiaztatuko liokeen dokumentazioa.

Dokumentazioa aurkezteko obligazio hori ez betetakotzat hartuko da eskatutako agiriak ez bidaltzerakoan edo bidalitakoak nahikoak ez izatean edo zuzenak ez direnean.

- b) Lizitatzailleak bere proposamenean aipatu dituen pertsonak benetan kontratuari atxikita izatea edo, pertsona horiek ez badira, titulazio eta esperientzia berdineko beste pertsona batzuk kontratatzea. Azken kasu horretan, alde aurretik udalari komunikatu behar zaio eta udalaren baimena jaso behar da. Obligazio hori betetzeke uzteak kontratua moztera darama, kontratistari egotzitako arrazoia dela medio.
- c) Kontratistak egin duen proposamenean eskaini dituen baldintzak betetzea, kontratuan funtsezko obligaziotzat hartzen direnak.

28. Berme-epa eta erantzukizunak:

Kontratu honi ez zaio berme-eperik ezartzen.

29. Kontratuaren lagapena eta azpikontratua.

Kontratuari darizkion eskubideak eta obligazioak beste hirugarren bati laga ahal dakizkioke baldin eta SPKLTBaren 226. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

Azpikontratazioa: Kontratu honetan ez da horrelakorik onartzen.

30. Kontratua aldatzea eta etetea.

Arlo honetan, SPKLTBaren I. liburuko V. Tituluak eta 219. eta 306. artikuluek diotenari egingo zaio men; baita Administrazio Publikoen Kontratazio Erregelamenduaren 102. artikulua ezarritakoari ere.

a) Baldintza-orrietan aurreikusitako aldaketak (SPKLTBaren 106. artikulua).

Kontratu honetan ez da horrelakorik.

b) Baldintza-orrietan aurreikusi ez diren aldaketak (SPKLTBaren 107. artikulua).

Baldintza-orrietan aurreikusi ez diren aldaketak, SPKLTBaren 107. artikulua aipatzen dituen inguruabar horietarikoren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada bakarrik egin daitezke; eta, beti ere, lizitazioaren eta kontratuaren adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira, SPKLTBaren 107.3 artikulua ezartzen duen eran.

c) Kontratua etetea.

Kontratua eteteari dagokionez, SPKLTBaren 220. artikulua ezarritakoari egingo zaio men.

31. Lanak amaitzea eta lanak jasotzea.

Lanak amaitu ondoren eta, hala balitz kasua, kontratistaren gainerako prestazio lagungarriak bete ondoren, kontratistak udalaren onspena eskatuko du bidezkoak irizten zaizkion dokumentuak eta justifikazioak edo frogariak aurkeztuta.

Kontratazio-organoaren ordezkariak egindako oharren inguruan kontratistak erreklamazioaren bat egingo balu, ordezkari horrek horren inguruko txostena egin eta bere txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoaren eskuetan utziko du. Horrek emango du ebazpena.

Kontratistak ez badu idatzizko erreklamaziorik egiten kontratuaren zuzendariak egindako oharren aurrean, ohar horiekin ados dagoela ulertuko da eta derrigortuta dago ikusi diren akats horiek zuzentzera edo bideratzera.

Kontratistari akats horiek konpontzeko eman zaion epea igaro eta oraindik konpontzeke edo bideratzeke baditu, kontratua moztu egin daiteke behin-betiko bermea galduta. Kasu horretan, kontratista derrigortua dago, bahitutako bermearen zenbateko horretatik gorako zenbatekotik gora izandako kalte horien kalte-ordaina udalari ordaintzera.

Edozein modutan ere, egindako lanak ez badira kontratatutako prestazioari egokitzen zaizkionak, kontratistari lepora dakizkiokeen akatsengatik, udalak lan edo prestazio horri uko egin diezaioke Kontratazio organoaren bitartez, eta, kasu horretan, ordainketa-obligaziotik salbuetsita geratuko da edo, hala bada kasua, ordaindu duen prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Aurreko tramite guztiak bete ondoren, prestazioak edo lanak behar diren baldintzak betetzen dituela uste bada, onarpena edo harrera egingo zaio. Kontratu-onarpen edo harrera hori, gehien jota, hile bateko epean egin behar da, kontratuaren helburua entregatu edo egin zen egunetik aurrera zenbatuta.

Zerbitzuen edo prestazioen harrera edo onarpen horren akta jaso beharko da. Akta hori jasotzeko, udalak, ekitaldi formal eta positibo bat bete beharko du, onarpenarena edo konformidadearena.

Kontratistak eskubidea izango du, kontratatu zaion prestazio edo lan hori betetzearen inguruan egiten diren oharrak ezagutzeko eta berea azaltzeko.

32. Kontratua desegitea.

Kontratua mozteko edo desegiteko arrazoiak, SPKLTBaren 223. eta 308. artikuluetan aurreikusitakoak dira.

Horrez gain, kontratua desegiteko arrazoitzat hartuko da baita:

- Ez betetzea funtsezko obligazioak.
- Ez betetzea adjudikaziodunak kontratua betetzeko baldintza bereziak, kontratua moztea lekarkeena.
- Kontratua era akasdunean betetzeagatik ezarri diren zehapenak kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 10era iristen direnean (BEZik gabe).

Kontratua, adjudikaziodunari egotz dakioken arrazoiren batengatik moztuko balitz, hari, behin-betiko bermea bahituko zaio; Administrazioari egindako kalte-galerak bahitu den bermearen kopuru horretatik gorakoak balira, hortik letozkiokeen kalte-ordainen kaltetan gabe.

33. Udalaren eskubideak eta jurisdikzio eskuduna

Kontratatze organoak eskubidea du administrazio-kontratua interpretatzeko, hura betetzeak dauzkan zalantzak ebazteko, interes publikoarengatik kontratua aldatzeko, hura desegitea erabakitzeko eta desegitearen ondorioak determinatzeko, SPKLTBan ezarritako betebeharrak eta ondorioak kontuan hartuta eta haren mugen barruan.

Kontratatze organo eskudunak ebaziko ditu administrazio-kontratuen interpretazio, aldaketa, desegite eta ondorioei buruz sortzen diren auziak, eta haren erabakiek bide administratiboa amaiaraziko dute; ebazpen horien aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa ipini ahal izango da hile bateko epean organo beraren aurrean, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratzen den biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eibarren, 2015eko otsailaren 27an

Izp Enrique ERRASTI
Erosketa eta Kontratazio Unitatearen arduradunak.

I. ERANSKINA
II.
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.

....JAUNAK/ANDREAK
..... bizi denak.....kalean..... Pkñ, etazbki.-ko NANA duenak
eta ondoko telefono hau:..... gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
osoarekin, bere izenean, edo enpresaren izenean
(helbidea:.....kalea:.....) eta haren ordezkari legez.POSTA
KODEA,.....IFK,
telefonoa: Jakitun dago, Eibarko
udalak,.....kontratua egiteko egin duen deialdirako prozeduraz.

HAUXE DEKLARATZEN DUT:

I. Hitz ematen dudala, kontratu hori burutuko dudala, prezio honetan (BEZ barne).....:
..... EURO (*zenbatekoa letraz idatzi*)
Hona hemen desglosea:

Zenbateko garbia..... €.
% 21, BEZ..... €
GUZTIRA

II. Orobat deklaritzen dut ezagutzen ditudala administrazio-klausula berezien orria, baldintza teknikoena eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioa, horiek denak neure egin eta berariaz onartzen ditudanak.

III. Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak galdatzen dituen betebeharrak eta obligazio guztiak zabaldu, instalatu eta funtzionarazteko.

Eibarren, 2014ko(a)ren.....(e)an.

Izp
NAN.

II. ERANSKINA.

DEKLARAZIO ARDURATSUA.

.....jaunak/andreak.....zki.dun NANA duenak, bere izenean edo honakoon gisa (ordezkaritza-ahalmenak adierazi: administratzaile bakarra, ahaldua...)enpresa ordezkatzuz.....(e)an egoitza duena eta.....zki.dun IFK; kontratuaren adjudikaziorako prozeduran parte hartzeko interesa duenez,

HAUXE AITORTZEN DU:

1.- Badituela Eibarko udalarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak, eta horrez gain, haxe adierazten du: Baldintza Ekonomiko Administrazioen Pleguan ezarritako kaudimen edo/eta sailkapen baldintzak ere bete egiten dituela.

2.- Badituela, kontratu honi dagokionez, jarduteko guztizko gaitasuna eta jardueran aritzeko beharrezkoak diren baimenak.

3.- Ez bera, eta orobat berak ordezkatzeko duen enpresa eta enpresaren ezein administratzaile edo legezko ordezkari ere ez daudela sartuta Administrazio publikoekin kontratatzeko inolako debekutan sartuta, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINEKO 60. artikulua aipatzen dituen horietan.

4.- Jakinarazpenetarako, posta elektronikoko hau ematen duela :
.....

5.- Enpresa inskribatuta dagoela Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta ziurtagiria ofizioz eransteko Baimena ematen duela (*bai,ez*) (adierazi dagokiona).

6.- Enpresa-taldeak (*Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua*).

Enpresa-talde bateko kide da enpresa (*bai/ez*):

(Hala bada, adierazi jarraian edo agiri honi gehitutako eranskinean, zer dela-eta lotu zaion taldeari, talde berekoak diren enpresek zer-nolako erlazioa duten eta enpresa horietatik zeinek duten lizitatzeko interesa.)

7.- Atzerriko enpresentzat: aitortpena edo deklarazioa egin behar dute, edozein motatako Epategi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioari men egiten diotela esaten, kontratutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako eta, hala balitz kasua, lizitatzaileri legokiokeen atzerriko barrutiko jurisdikziori uko eginez.

Eta hala agerrarazteko, deklarazio edo aitortpen hau izenpetzen dut,(e)n,
20...ko.....aren.....(3)an.

III. ERANSKINA.

ABAL EREDUA

.....entitateak ,
.....IFK(e)an egoitza duenak (jakinarazpen eta
errekerimenduetarako) eta bere
izenean.....
..... egintza honetan bere burua
obligatzeko nahiko ahalorde izanda, agiri honen beheko zatian adierazten den ahalorde-
askiestetik gertatzen den arabera, ABALATZEN DU:

..... (r)¹ (izen-abizenak edo merkatu izena),
.....IFZ/IFK duena, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU
BATEGINA onartzen duen 3/2011 legegintzako errege-dekretuaren 95. artikuluan
xedatutakoaren arabera honako obligazio hauei erantzuteko:

.....
Eibarko Udalaren aurrean.....(e)ko zenbatekoan

Entitate abal-emaileak bere erantzukizunpean deklaritzen du Administrazio Publikoen
Kontratuen Legeak duen Erregelamendu Orokorreko 56.2. artikuluan xedatuta dauden
betebeharrak betetzen dituela.

Abal hau solidarioki ematen da obligatu nagusiarekiko, eskusio-onurari esanbidez uko eginez
eta konpromisoa hartuz Eibarko Udalak lehen errekerimendua egiten duenean, Administrazio
Publikoen kontratu-leggedian eta hura garatzen duten arauetan xedatutako baldintzak betez.

Abal hau indarrean egongo da harik eta Eibarko Udalak edo haren izenean hori egiteko gaitua
izan denak baimentzen duen abal hau baliogabetzea edo itzultzea erakitzen duen arte
SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO TESTU BATEGINAK eta legeria osagarrian
xedatutakoaren arabera.

(Lekua eta data)
(entitatearen merkatu izena)
(ahaldunen izenpea)

Aholordea askiestea Gordailu Kutxa Orokorraren lege-aholkularitzak edo Estatuko Abokatutzak		
Probintzia	Data	Zenbakia edo kodea

¹ (ETORKIZUNEKO ENPRESEN ALDI BATERAKO BATASUN BATEKO KIDEEK ABALA
ERATZEN DUTEN KASUAN)

..... (R)I (izen-abizenak edo merkatu izena),.....IFZ/IFK duena, eta,
horrekin batera, solidarioki(r) i (etorkizuneko enpresen aldi baterako batasuneko kide
guztien izen-abizenak edo merkatu izena eta IFZ/IFK aipatu).

